


the balde



0€

abenduak | unkenria  
december | january

25

istorio japoniarrak  
japanese stories

# 25



## the balde

marzelo zelaieta 75  
13. bulegoa  
31014 iruñea  
t. +34 948 12.19 76

kristobaldegi 14  
20014 loiola donostia  
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net  
m. +34 639 20 80 22

www.thebalde.net

**argitaratzailea / publisher:** eragin.com · komunikazioa eragin sll

**editore / editor:** iñigo martinez

**zuzendaria / director:** koldo almandoz

**diseinu burua / head of design:** martin etxauri

**zuzendari komertziala / comercial director &**

**publizitatea / publicity:** mireia mugika, edu pinillos, arantza subiñas

**diseinua / design:** martin etxauri, unai abarzuza, sonia beroiz,

igor astigarraga, txuma vazquez, marisa mantxola

**itzulpenak / translations:** smiley, amaia orella

**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:**

the balde crew in japan, peru almandoz, arkaitz billar, eider rodriguez

**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:**

the balde crew

**web orria / web page:** ainara gorostiaga

**ale honetako komikia / comic this issue:** txo&txolo

**ale honetako harpidetza orria / subscription page:** the balde crew

**inprimategia / printed at:** espacegrafic.

**lege gordailua / legal:** na-3244/01



www.creativecommons.org



Ian berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:  
imaginative, provocative and interesting works? send them to:

[info@thebalde.net](mailto:info@thebalde.net)



tokio: tokian tokiko  
tokyo: stay or take away



喫煙マナーを守りましょう





DUTY FREE TAX-FREE STORE  
TAKARADA

DUTY FREE 免税店

AV/DVD  
レコーダー  
ビデオカメラ  
HDD/DVD  
レコーダー  
ビデオカメラ  
TAKARADA

TAKARADA  
DUTY FREE  
免税店  
DUTY FREE  
免税店

DUTY FREE & DISCOUNT

GAMERS  
本店  
DAISO





no comment

**skunkfunk**  
clothes · underwear · accessories

fall  
winter  
05 / 06





## kableaturik


Lurrikaren eraginez, kableak ezin dituzte lurperatu eta airean esekitzen dituzte. Porlanezko arbolak diruditen poste erraldoietan lotuta, kableek, hiriak armiarma sare batean harrapatzen dituzte. Edgar Allan Poe beraren bihotza uzurtuko luketen bele erraldoiak pausatzen dira kableetan. Eta euren karraka beltzek, munduan wireless erabilpen handiena duen herrialdean, kableaturik bizi direla errepikatzen digute aldiro.






## a wired country

Due to earthquakes, wires cannot be underground and instead, they are placed in the air. Tied to poles big as trees, the wires wrap up the city like a spider web. In these wires some of the raven that would shrink Edgar Allan Poe's heart are placed. And their black cawing reminds us that in this city that has the highest number of wireless use, people live wired.





Katzunari Watabik esku trebeak ditu. Garai batean bere eskuen abilezia bilakatu zuen ogibide. Egun, ordea, lau gauza idazteko besterik ez ditu erabiltzen. Herria utzi eta Tokiora etortzeaz ez da damutzen. Dibertigarriagoa da Tokio. Hala ere, guretzat, kanpotar basatontzat, bere aurreko bizitza askoz interesgarriagoa da. Katzunari masajista zen. Wagyu behi masajista.

Aspaldian, wagyu arrazako behi eta idiak libre bizi ziren Japoniako mendietan. Gizakia, bere senari jarraiki, lau hanketako animalia hauek harrapatu eta ukuiluetan gordetzen hasi zen. Garai feudalean, wagyu behiak gudari trebeentzako soilik hazten zituzten. Japoniar arrazako behi hauen haragia orduan hasi zen luxuzko elikagai izaten. Baina gosete garaietan, laborantza lanetan jarri zituzten wagyu arrazako behi eta idiak, eta denbora pasa ahala, beste herrialde batzuetatik ekarritako behiekin nahastu zituzten. Wagyu behiak gero eta eremu txikiagotan geratu ziren eta arraza aratzeko ale gutxi batzuk geratu ziren isolaturik. Egun, horregatik da hain preziatua wagyu behietatik ateratzen den Kobe izeneko haragia. Horregatik, eta arraza honetako behiak hazteko prozedura bitxi eta korapilotsua jarraitu behar delako. Batetik, behiak egun ia osoa etzanda mantentzen dituzte muskuluak gogortu ez daitezela. Honetan laguntzeko, garagardoa ematen diete edateko. Behiak erdi mozkortuta pasatzen du egun osoa eta etzanda egoteko gogoa sentitzen du. Garagardoak gainera behia gizendu eta proteinaz betetzeaz gain, garagar zaporea ematen dio haragiari. Eta guzti hau nahikoa ez balitz, gure lagun Katzunariren lanbide zaharrak ere badu zerikusirik Kobe haragiaren emaitzan. Haragia xamur-xamur egon dadin, masajista espezializatuek animaliaaren solomoetan gora eta behera mugitzen dituzte euren eskuak egunero. Aipatutako guztiarekin, marmol itxura duen haragia lortzen da. Hau da, gantzak eta haragiak bat egiten dute, jabugo urdaiazpikoan gertatzen den moduan. Izan ere, haragiaren zaporeak eta xamurtasunak ez du parekorik. Guzti honek, jakina, Kobe haragiaren prezioan eragin zuzena du. Wagyu behi baten haragi kilo 300 euro balio izatera irits daiteke...

Katzunari Watabi has skillful hands. In a time, the ability of his hands was her job. However, today she only uses them to write. She does not regret her leaving her town and moving to Tokyo. Tokyo is more fun. Nevertheless, for us, wild foreigners, her former life was much more interesting. Katzunari was a masseur, a masseur of Wagyu cows.

Long time ago, in the mountains of Japan, Wagyu breed cows and oxen lived free. The human being, instinctively, caught these four leg animals and put them into stables. In feudal times, Wagyu cows were only bred for brave warriors. At that time, the meat of these Japanese cows was beginning to be a deluxe food. But in times of famine, these cows and oxen were put to plow and as time went by, they were mixed with other cows brought from other towns. The Wagyu cows were confined to small areas and hence, there were only very few pure breed cows left. Nowadays, this is why it is so esteemed the meat we get from these cows. Besides, it is also because the breeding of each cow is a valuable and different procedure. On one hand, cows are lying all day long so that their muscles do

not stiffen. They are fed with beer to help them be calm. They get drunk and so lie down all day. The beer fattens and fills them up with proteins. Besides, their meat has beer taste. In addition to this, the job of our friend Katzumari plays an important role in the result of the meat of Kobe. Expert masseurs move their hands up and down their flesh everyday so the meat gets soft and tender. Due to what is above mentioned, they get meat that looks like marble. That is, the fat and meat join together, as in the "jabugo" ham. Therefore, the taste and tenderness of the meat is excellent. All this, has a clear effect on the price of the meat of Kobe. The price of one kilo of the meat of a Wagyu cow can reach up to 300 euro.

LACUNZA


A MEMBER OF THE INTERNATIONAL HOUSE WORLD ORGANISATION

¿Buscas resultados?



EA UALS  
EQUALS - THE EUROPEAN ASSOCIATION  
FOR QUALITY LANGUAGE SERVICES

www.lacunza.es



Salamanca pasealekua, 3 20003 Donostia • 943 42 40 40

ERAGIN.COM



THE MOST  
WANTED DESIGN

diseinu grafikoa, internet & argitarapenak • info@eragin.com



948 38 21 22  
**DISTURB US!**

diseinu grafikoa, komunikazioa, web diseinua  
irudi korporatiboa, edizioa, maketazioa  
ilustrazioa, packaging, publizitatea...

estudiobitarte

marcelo celayeta 75 of. 14. 31014 iruñea  
t. 948 38 21 22. f. 948 38 21 22.  
bitarte@estudiobitarte.com  
www.estudiobitarte.com



KOLDO MITXELENA Kulturunea

Urdaneta 9 - 20006 DONOSTIA  
tel 943 112 750  
sala@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoakultura.net

kulturunea

# ERA KUS TARE TOA

# 2006

**ART HAPPENS**  
urt 31 - mar 25

**CHARLES SANDISON**  
api 27 - eka 17

**GLASSKULTUR**  
uzt 6 - irai 23

**GURE ARTEA**  
urr 19 - urt 5



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

geugaz tokion thebalde  
going underground & underwear





和光市

put your face here

都営三田線  
東武東上線

小竹向原

有楽町線(新線)

千川

要町

池袋

西巣鴨

巣鴨

新大塚

江戸川橋

茗荷谷

春日

後樂園

丸の内線

水道橋

飯田橋

九段下

神保町

茗荷谷

竹橋

魏町

半蔵門

皇居

四ツ谷

永田町

二重橋前

西武有楽町線經由  
西武池袋線飯能まで  
直通運転

JR中央線三鷹まで  
直通運転

阿佐ヶ谷

東中野

大久保

JR中央線

中野坂上

新宿西口

西武

新宿

中野富士見町

西新宿五丁目

都庁前

方南町

下高井戸

明大前

京王線

京王新線

笹塚

代々木

千駄ヶ谷

信濃町

京王線經由京王相模原線橋本まで  
直通運転

put your face here

代々木公園

国立競技場

青山二丁目

表参道

外苑前

乃木坂

六本木  
六本木

内幸町

二子玉川

三軒茶屋

東急田園都市線

京王井の頭線

東急田園都市線千代田線間まで  
直通運転

東急東横線

自由が丘

東急東横線菊名まで  
直通運転

田園調布

大岡山

東急目黒線武蔵小杉まで  
直通運転

旗の台

東急池上線

五反田

戸越

大崎

ゆりか

お台場

台

羽田






株式会社

**LADINAMO**  
ASOCIACION CULTURAL



ALDIZKARIA MAGAZINE  
ARETOA MEETING POINT  
ARGIALETXEA EDITORIAL




ANTZERKIA THEATRE  
DANTZA DANCE  
DJ-AK DJS

[www.ladinamo.org](http://www.ladinamo.org)

c/Mira el Sol, 2  
28005 Madrid







## tester

Tester, Fundación Rodríguez bultzatu eta Artelekuren laguntza duen proiektu kolektibo eta deszentralizatu da, non maila ezberdinetan kolaboratzaile ezberdinek hartzen duten parte. Arte garaikidea eta gehien bat teknologia berriekin zerikusia duten proposamen artistikoak ekoiztu eta zabaltzeko sortu zen Tester. Teknologia erabiliaz, Testerek proiektuko parte hartzaileen arteko komunikazioa eragiteaz gain, ohiko zirkuituetatik dauden proiektu eta artisten lanak zabaldu eta ikusgarri egin nahi ditu. Zentzu horretan, lokalismoa eta nazioarteko zabalkundea maila berean funtzionatu dezaketela frogatzen du proiektuak. Tester sare bat da. Sorkuntza prozesu eta emaitzak antzeman eta zabaldu nahi dituena. Tester proiektuari interesatzen zaion sorkuntza ez da norabide bakarrean ematen eta gai aldetik ez du inongo premisarik. Azken lanak biltzen dituen DVDa kalean izango da datozen egunotan. Hala ere, proiektuaren berri zehatzagoa izateko jo ondorengo helbidera.

[www.e-tester.net](http://www.e-tester.net)

Tester is a decentralised collective project where different collaborators are involved at different levels and which is promoted by the Fundacion Rodriguez and backed by Arteleku. Tester was founded to produce and distribute artwork that stems from modern art and, above all, new technologies. The use of technology not only stimulates communication between the people involved in the Tester Project, but it also aims to distribute and make visible the projects and work of artists who aren't a part of the usual circuit. In this way, the Tester Project has proven that all of these can work on both local and international levels. Tester is a network there to highlight the creative process and distribute the finished pieces of work. The creativity the Tester project is interested in is not a one directional affair and there are no limits as far as subject matter is concerned. A DVD of the latest work to come out of the project is to be released in the coming days. If you want to know more about the project, go to the following site:

[www.e-tester.net](http://www.e-tester.net)

## E-TESTER




# BRANKA jazz

ostegunero every thursday



20-22 h Pasco E.Chillida 13 (peine de los vientos) Donostia [www.branka-tenis.com](http://www.branka-tenis.com)



Iazko harrera ona ikusita...


## ENTZUN! ek *Euskal Bideoklipen Bilduma 2*

GUTU GUTU BEMERA DVDa aurkezten du.

16 bideoklip!

POTEMKIN, CAPTAIN NEMO, MOTORSEX, GATILLAZO, LUIS VIL, SURFIN KAOS, IDI BIHOTZ, MUTED, BLOK, KOMA, DIKERS, SEIURTE, ZEIN?, HALF FOOT OUTSIDE, SPLIT 77, SORKUN, KEN ZAZPI

+ Bonus track bat! LOR




POTEMKIN - CAPTAIN NEMO - MOTORSEX  
GATILLAZO - LUIS VIL - SURFIN KAOS  
IDI BIHOTZ - MUTED - BLOK - KOMA - DIKERS  
SEIURTE - ZEIN? - HALF FOOT OUTSIDE - SPLIT 77  
SORKUN - KEN ZAZPI - THC - LOR BONUS TRACK

Eskuratu DVDa eta  
Entzun! en  
urtebeteko  
harpidetza soilik  
15 eurotan

Eskatuiguzu zuzenean: 948 12 19 76 - [entzun@entzun.com](mailto:entzun@entzun.com)  
edo gure webgunearen bitartez [www.entzun.com](http://www.entzun.com)





# AUDIO

testua/by: elektro



## SHONEN KNIFE

### "Genko Shock"

80.hamarkada hasieran sortu zen Ramones, Red Cross edo Sonic Youth bezalako enpresa duen Shonen Knife. Azkarrak, zuzenak, biziak eta emakumezkoak. Hiru neskek osatutako taldeak disko sorta ugari utzi ditu bere ibilbidean. Horietako asko "Let's knife" bezain esanguratsuak. 2005ean "Genko Shock" aurkeztu dute eta betiko egitura ramonianoan datoz "Twist barby" edo "I wanna eat choco bars" kantuetan. Gabba gabba knife! Shonen Knife, clearly influenced by bands like Ramones, Red Cross or Sonic Youth, were formed at the start of the 80s. Fast, in your face, energetic and women. This three-piece female band have released quite a few records in their career so far. Lots of them as important as "Let's knife". They released "Genko Shock" earlier this year and they remain true to their Ramonian roots on songs like "Twist barby or I wanna eat choco bars". Gabba gabba knife!

## RAINSTICK ORCHESTRA

### "The Floating Glass Key in the Sky" Ninja Tune

Baku Tsunoda eta Naomichi Tanak Tokion elkarren alboan bizi arren ez zuten elkar ezagutzen. Gau batean ordea dj lanetan areto berean aritu ostean antzeko musika maite zutela konturatu ziren. Honela, duela lau bat urte hasi ziren Rainstick Orquesta izenpean lanean. Esperimentaziora zuzentzen dituzten egiturak lantzen dituzte, askotan ambientalak bilakatzen direnak. Disko honek hiriburuko zaratatik ihes egiteko balio digu.

Even though Baku Tsunoda and Naomichi Tanaka lived close to one and another, they didn't know each other. That all changed one night when they ran into each other working as DJs in the same joint and they discovered they loved the same type of music. So, four years ago they start working together in Rainstick Orchestra. The stuff they do is rather experimental and tends towards ambience music. This record is for those who wish to escape the hustle and bustle of the big city.

## ZATOICHI

### B.S.O. Film Soundtrack

Itsuek beste edonork baino hobeto entzuten dutela esan ohi da. Horrekin lotu dezakegu Kitanok parte hartzen duen Zatoichi filma, non protagonista itsuak entzumenean oinarritzen du bere iaiotasuna. Ez dut pelikula kontatuko, beti ere horren urrun eta arraro geratzen zaizkigun Japoniako doinuak gerturatzeko asmoz. Keiichi Suzuki aukeratu zuen Kitanok lan honetan musika egiteko eta honen irudimen eta ukitu pertsonala magikoak iruditzen zaizkit.

It's always been said that the blind always hear better than anybody else. We can tie Kitano to this idea in the film Zatoichi, where the blind protagonist bases their deftness on their hearing powers. I won't go into the story of the film here. I do, however, recommend the soundtrack as it does bring us closer to forever distant and strange Japanese melodies. Kitano chose the musician chose Keiichi Suzuki to compose the soundtrack. Suzuki's imagination and personal touch to the music are magical to me.

## KURANDO

### "Spanish Trojan Sound Box"

Kurando Shoji. Bere proposamen musikala entzunda ordea afrikarra edo jamaikarra dela pentsatuko genuke. Hori da bere sesioetan entzun daitekeena. Azkenaldian Radio 3en Bob Marleyri buruz egindako erreportajetan entzun ahal izan dugu gainera. Edo Makalaren Boom Shakalaka irratsaioko sintonian ere bai. Ze martzianoak diren japoniarrek pentsatuko du batek. Martzianoa baino jamaikarra kasu honetan. Ibon Errazkin donostiarraren laguntza izan zuen bilduma hau gauzatzeko orduan. Kurando Shoji. When you first hear the music, you'd swear it was African or Jamaican. That's the type of music you can hear in these sessions. What's more, you've been able to get a blast of the music in the series on Bob Marley recently broadcast by Radio 3. Or you might have heard it on Makala's Boom Shakalaka radio show as well. Some of you might think that these Japanese are total Martians. Well, more Jamaican than Martian in this case. Donostia lad Ibon Errazkin was involved in the making of this collection.



## japonian zuzenean live in japan

### GALDERAK

- 1- Zer sentitzen da orokorrean zure musikaz gutxi jakin eta lehendabiziko aldiz ikusten zaituen ikuslego baten aurrean jotzerakoan?
- 2- Nolako erantzuna izan zuen ikuslegoak zuen kontzertuetan?
- 3- Japoniara itzultzeko –edo sekula santan ez bueltatzeko- arrazoi bat?
- 4- Talde japoniar kuttunik?
- 5- Bidaian gertatu zitzaizuen bitxikeriaren bat?



### QUESTIONS

- 1- What does it feel like to play to a crowd that know little or nothing about you and have never seen you before?
- 2- What kind of response did you get from the crowds at the gigs?
- 3- A reason to go back to Japan... or never set foot in the place again.
- 4- Your favourite Japanese band.
- 5- Any funny anecdotes from your travels there?

### atom rhumba

- 1- Froga ona da taldearentzat, aurreiritzirik gabe gure kantuek ze punturaino funtzionatzen duten erakusten duelako.
- 2- Energia askorekin, gutziz erotuta daude.
- 3- Entzuleak. Kontzertuetara datorren jendea. Bestetik aipagarria da ere ematen dizuten tratua eta errespetua: teknikariak, antolatzaileak, kazetariak, managerrak,... Janaria ere bai, izugarri goxoa da.
- 4- Askok daude!: Boredoms, Guitar Wolf, Teengenerate, Polysics, Acid Mothers Temple, Cibo Matto, Thee, Michelle Gun Elephant, Jet Boys, 5678's...
- 5- Fan fenomeno bizi izan genuen. Astebetez Rolling Stone bat izatea bezalakoa da: 20 metro egiteko ordu erdia ematen genuen, sinadurak eta argazkiak eskatzen zizkizun mundu guztiak, jendeak garrasi egiten zuen. Eman genuen bigarren kontzertuan, ordurako ikusle askok gure elastikoa zeraman! Oso dibertigarria izan zen.

Osasuna eta rhuuuumba!!!



### atom rhumba

- 1- It's a good test of a band. It gives you the chance to see just how well your songs work in front of a crowd that have no preconceived opinions or ideas of what you're about.
- 2- Energy pile-drivers... they're all totally off their fuckin' trolleys!
- 3- The punters. The people who go to concerts. Then there's also the treatment and respect you're afforded: technicians, promoters, journalists, managers... and the food is gorgeous too.
- 4- Uff! There's loads of them: Boredoms, Guitar Wolf, Teengenerate, Polysics, Acid Mothers Temple, Cibo Matto, Thee, Michelle Gun Elephant, Jet Boys, 5678's...
- 5- We experienced the whole 'fan' phenomena. It's like being a Rolling Stone for a week: it'd take us hours to struggle 20 yards... everybody asking for autographs and photos....people screaming. By the time we played our second gig, everybody in the audience was wearing our t-shirt! It was an amazing buzz.

Health and Rrrrrrrumbas!!!!



## joxe ripiau

1- Japoniakoa gure kulturatik oso-oso urrun sentitu nuen hasieratik. Batek zioen hortik ibiltzea dela martziano makina baten barruan ibiltzea bezalakoa. Beste batek esan zidan tripi bat dela. Ados nago bi iritziekin. Joxe Ripiaukoei oso dibertigarria iruditu zitzaigun bertan jotzea.

2- Liburu batean bertako dantzak horizontalak direla zioen. Gurekin salto egin zuten gustura!

3- Itzultzeko hamaika arrazoi. Zentzu askotan hain urruti gelditzen zaigun herria ezagutzea lehenengoa, hau oso erakargarria egin zitzaidan. Errespetua eta hemengo umeek munduaren aurrean harritzeko gordetzen duten ahalmena gordetzen du jende askok han. Sagarroi taldekoak datorren urteko udan joango gara bira egitera. Kontatuko dizuet bueltan.

4- Doberman ikusi nuen orain dela gutxi Ondarrun (Betagarri taldeak gonbidatua) eta oso dibertigarriki iruditu zitzaizkidan.

5- Kar, kar, kar, bidai osoa izan zen bitxikeri bat bestearen ondoren. Asier tronboi joleak tren-geltokiko txarteldegian txartela atera nahi zuen eta ez zekiten ingelesez. Orduan makinan "HELP" botoi bat sakatu eta atetxo bat ireki zen. Barruan japoniar txiki bat zegoen, ingelesez zekiena, Mortadeloren komikietan bezala. Osakan karaoke batera eraman gintuzten (5. solairu batean zena) eta bertakoek "Los vascos" izena zuen ardo txiletarra atera ziguten. Kanta bat aukeratzeko liburua eman ziguten, eta telefonoaren gida zirudien! Kontzertu batean tipo heldu bat eszenatokira igo eta yen billeteak sartu zizkigun praketako patriketan, eta horrelako asko...



## joxe ripiau



1- From the start I felt that Japanese culture was really distant from ours. Someone said that it was like getting into some type of Martian machine and somebody else told me it was like dropping acid. I agree with both of them. Joxe Ripau had a ball playing over there.

2- A book I read said that dances over there are horizontal. Well, they certainly enjoyed jumping around at our gigs!

3- There's loads of reasons I'd go back. The first one is that you get to know a place that's so far from the one you're from, and in more sense of the word than one. I was really drawn to the place. The people over there seem to have hung onto the ability to be still surprised by the world, like children over here. Sagarroi are going over to tour there next summer. I'll tell you all about it when we get back.

4- I saw Doberman in Ondarru a while back (they were invited over by Betagarri). I really enjoyed them.

5- (laughs) ... The whole trip was an endless list of anecdotes. Asier the trombonist went to a train station to get a ticket but the people at the ticket desk couldn't speak English. He pressed the 'HELP' button on the machine and a little door popped open. There was a Japanese midget who could speak English inside! Just like the Mortadelo comics. In Osaka they brought us to this Karaoke on the fifth floor of a building and they opened a bottle of Chilean wine called 'Los Vascos' for us. They gave us a book of songs to choose from... it was like a telephone book! During a gig this old geezer jumped up on stage and stated stuffing Yen notes into our trouser pockets... the list is endless...



## betagarri

1- Gure lehenengo aldia itzela izan zen, Ska festibal batean izan zen Kawasaki-ko Cita aretoan. Beteta, eta denak dantzaz. Horrela balitz hemen beti... Japoniarrek musika kultura ederra dute, eta kontzertuetara joateko ohitura dute. Kontzertuetara, ez jaietara. Hemen inor ez doa ska kontzertu batera asteazken batean arratsaldeko seietan, eta han bai. Eta nola pasatzen duten! Hemen txosnak, kalimotxo... ez badago, zaila da areto bat edo plaza bat betetzea.

2- Ederra guztietan, aipatzen nuen moduan, oso irekita daude. Zuk imajinatzen duzu Danimarkako talde ezezagun kontzertu bat Euskadiko ez dakit zein aretotan azaroko astearte batean? Eta ordaindu beharrekoa? Ez litzateke inor joango. Gu ikusten beti egon da jendea, areto txikietan, baina beti egon da jendea, eta hori bai, asko edo gutxiago egonda, joaten direnak disfrutatzen joaten dira.

3- Itzultzeko mila, eta gehiago musikaria izanda. Han topatuko baituzute aretorik modernoena, teknika arloan munduko ekiporik onenak, sei teknikari zure esanetara... en fin asko dugula ikasteko, beti esaten da Euskal Herriko musika la ostia dela, baina ez da, ez da. Oso zahartuta dago dena hemen, 80. hamarkadan bezala gabiltza, eta XXI. mendean gaude!!! Ez bueltatzeko, askotan japoniarrek zure onetik ateratzen zaituela, oso-oso karratuak dira, eta irribarrearekin bai, baina ez diezu egin behar dutena aldatuko. Eta taldeko batzuentzat janaria.

4- Ez dut izenik gogoratzen. Baina asko. Pentsa ezazue milaka talde dagoela.

5- Egunero mila. Batez ere beraien profesionaltasunarekin flipatu dugu. Ezin duzue imajinatu zer nolako parafernalia montatu zuten autopistan hilda zegoen uso bat kentzeko, eta hori bazterrean zegoela. Edo gauez etxera itzultzen ehunka langile errepidean, kristoren segurtasun neurriekin. Lan asko egiten dutela entzun dugu beti, baina gustatuko litzaiguke guri beraien moduan lan egitea. Ez dut uste hemen bezala egunero hildakoak egongo direnik. Orokorrean, nahiz eta gauza txarrak ere eduki, gauza on asko dute beraiengandik ikasteko.

## betagarri

1- The first time we were over was just incredible. We played at a ska festival at the Kawasaki Cita Concert Hall. The place was packed to the rafters and everybody was dancing off their heads! If only it was always like that over here... The Japanese have a wonderful music culture and they GO to concerts. Concerts, not festivals. Nobody goes to a ska concert at six o' clock on a Wednesday afternoon here, whereas in Japan they do. And you'd wanna see how they get off on the whole thing! Here, if there's no beer tent or kalimotxo, you'd be hard pushed to fill a hall or a square.




2- Great every time. Just like I said to you before, the Japanese are a really open lot. Could you imagine an unknown group from Denmark playing anywhere in the Basque Country on a Tuesday in November? And people paying to get in? Nobody would go. We've always had a crowd turn up to our gigs, mostly at small venues, but a crowd nonetheless, and what's more, it doesn't matter how many go, the ones who do go to have a good time.



3- As a musician, there are thousands of reasons to go back. You play at the most modern venues. Technically speaking they have the best sound systems around, six technicians at your beck and call... I mean, we really have got it all to learn over here. We always kid ourselves that Basque music is the dog's bollocks, but not in million years. We're really behind the times over here. We're still stuck back in the 80s. We're in the 21st Century for chrissakes! On the other hand, The Japanese can really drive you mental at times. They can be really square-headed. Oh sure, they'll flash you a little smile, but there's no way you're gonna get them to change their minds about doing something. That might be a reason not to go back.

4- I can't think of any names but there's loads of them. Imagine like, there are thousands of groups over there.

5- Hundreds every day. We really flipped out with their professionalism. You wouldn't believe the rigmarole they went through to get a dead pigeon off a motorway. And it was on the side of the road! Or the hundreds of workers on the roads at night going home with serious safety measures. We've always heard how hard they work over there, but we'd love to work in the conditions they do. I doubt very much that they get the same amount of deaths at work as we do. On the whole, though there is the odd negative thing, we could certainly learn a whole lot of good from them.






TRISTEA DA ESATEA BAINA JAPONIAN HEMEN BAINO HOBETO ULERTZEN DUTE ROCK AND ROLLA ZER DEN. (LOBO ELÉCTRICO) SAD BUT TRUE TO SAY...BUT IN JAPAN THEY KNOW MORE ABOUT WHAT ROCK 'N'ROLL IS ABOUT WE DO OVER HERE. (LOBO ELÉCTRICO)



### la oreja de van gogh

- 1- Zure hizkuntza eta zure ikuslegoa ez den jende bat kontzertuan sartu eta ongi pasatzen duela ikusten duzunean poza handia da, erronka eta zalantzak handiak izaten direlako..
- 2- Ez genuen izan genuen harrera espero. Ikuslego japoniarra hotza zela entzuna genuen baina guk oso gertuko sumatu genituen.
- 3- Esperientzia ederra izan zen eta iruditzen zaigu edonorentzat Japonian jo eta bertan diskoak saltzea pisu handiko arrazoia dela. Gainera herrialdea eta bertako ia guztia hain ezberdina izatea ere erakarpen berezia sortzen du.
- 4- Pizzicato Five y Singer Songer.
- 5- Gure bidaia lurrikara baten azken dardarekin hasi eta tifoï baten iritsierarekin amaitu zen. Oso Japoniarra...



### la oreja de van gogh

- 1- It's really great to see a crowd that's not your own and that doesn't speak your language going to your gigs and getting a buzz out of them because you're really not sure before you play...it's quite a challenge to go there...
- 2- We certainly didn't get the reception we had expected. We had heard that Japanese audiences were really stand-offish, but they certainly got behind us.
- 3- It was a beautiful experience for us and we think to play in Japan and sell records there is reason enough for anybody to go.
- 4- Pizzicato Five and Singer Songer.
- 5- Our trip began with the final tremors of an earthquake and ended with the arrival of a typhoon. Really Japanese...





EDIZIOAK ETA IMPRESIOAK OROKORREAN  
EDITING AND PRINTING IN GENERAL

Imprimakiak, katalogoak, liburuak, liburuskak, aldizkariak, aurreinpresioa  
Forms, catalogues, books, brochures, magazines, preprinting



Pol. Ind. C/G, Nº 11 · 31192 Mutilva Baja · Navarra · Spain  
Telf. 34 948 23 93 36 · Fax. 34 948 23 82 16  
www.espacegrafic.com  
e-mail: info@espacegrafic.com



www.musicaexmachina.com

BILBO 2005 / 12 / 15-30  
MEM ARTEEN JAIALDIA

DAVID THOMAS (PERE UBU) //  
FE-MAIL // MOUTHUS //  
THE COMPANY LTD (COUNTRY TEASERS) //  
AMSIA // CLARA GARI // X.M.BUXAN //  
BARTOLOME FERRANDO // FELIX FERNANDEZ //  
BURROUGHS // ANTONY BALCH //  
FELIPE URIBARRI // GAST FALL //  
TRUNA // ANNABELLE BONNERY...




MEM

suzko loreak  
fire flowers

hana bi















elkar

Durangonobedadeak 05

**gure!  
arteana  
euskaraz**





Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Kultura Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento de Cultura

the balde-japonicus party:  
tokyo. sangenjaya metro station.  
dune bar

dj yossy  
dj fulja  
dj amemiya ksk  
vj dropezframes

oharra:  
belarra bentiladorearen azpian erre.  
metronik ez goizeko 5.30ak arte.  
remember:  
smoke grass under de ventilator.  
no metro until 5.30am.



## panchira

**Emakume bati kuleroak instante bakar batez ikusteari ematen zaion izena da panchira.**

Egunerokotasunean oso barneraturik daude fetitxismo molde ezberdinak Japonian. Lurrikara eta tifoletan bezala, sexu fetitxismoan potentzia mundiala dira. Metroan, lanean, parkean... panchira une labur eta errepikaezin hori Stendhal sindromearen moduko emozioz betetako gertakizun baten moduan bizi dute japoni-arrek. Eta zergatik ukatu... japoni-ar ez garenok ere gozatzen dugu kotoizko panchira une heze horiekin.

Eskola uniforme jantzitako neskatxak eta koadrodun minigonetan ezkututzen diren kuleroak ikono erotiko dira aspaldidanik egunsentiko eguzkiaren herrialdean. Chicho Terremoto marrazki bizarduna oroitzea besterik ez dugu. Popeyeri espinakak jatean izaten zuen efektu bera sufritzen zuen Chicho Terremoto saski baloi jokalaria bere begi borobilek kulero batzuk ikusten zituenean.

Ez da harrizkoa hortaz, erabilitako kuleroen merkatu beltza existitzea. Erabilitako kuleroen negozioa, legala ez bada ere, hedatua eta nahiko onartua dago. Emakume batek bizpahiru egunez kulotak jantzi eta gero kulero trafikatzaileri saltzen dizkio. Honek, berehala, merkantzia poltsatxo batean sartzen du usaina ahalik eta gehien gorde dezan. Batzuetan kuleroa jantzi duen neskaren argazkia itsasten zaio kaxatxoari. 2000 yen inguru kostatzen da erabilitako kulero basiko bat. Apur bat gehiago ordainduta hileroko odolaz ziprintindutakoa eskura dezakezu. Kulero erabilien eskaera handia da. Hainbestearainokoa, lapurreten beldur, kuleroak etxe barruan zintzilaturik lehortzen dituen herrialdea dela Japonia.

**In Japan, a momentary glimpse of a woman's underwear is called panchira.**

Different types of fetishism have become the bread and butter of everyday life here. Sex fetishisms wield as much power as earthquakes and typhoons. This Stendhal Syndrome type emotionally charged experience is lapped up by the Japanese; on the tube, at work, in the local park... anywhere. And why deny it... those of us who are not Japanese also get off on a little damp cotton panchira moment.

Those little slips hidden by school uniforms and checked mini-dresses have long been an erotic icon in The Land of The Rising Sun. All we have to do is let our thoughts drift back to cartoon character Chicho Terremoto. Every time Basketball player Chicho Terremoto set his big round eyes on a pair of panties, he went all ballistic like Popeye on spinach.


It's not surprising, therefore, to discover that a black market for knickers has come to exist. The used-underwear market, though not legal, has become widespread and whose existence is relatively accepted. A woman wears a pair of knickers for two or three days and then sells them to a knicker-dealer. Said dealer quickly throws the prized article into a plastic bag to maintain as much aroma as possible. Sometimes a picture of the owner is stuck onto the bag. Your basic used underwear costs about 2,000 Yen. If you're willing to splash out a bit more, you can get yourself a pair soiled with menstrual blood. There is a huge demand for used underwear. So much so that the Japanese, afraid of theft no doubt, are a nation that dry their underwear indoors.



fugu roulette




fugu erruleta



Fugu arrainak (Fugu rubripes), bi defentsa mekanismo erabiltzen ditu. Batetik, etsaiak uxatzeko, puxika baten moduan puzten da. Nahiko arrakastatsua izaten da babes teknika hau, baina galtzen duenean ere, irabazten badaki fugu arrainak. Gorputz osoa pozoï glandulaz hornituta duenez, etsaiak jaten duenean, bere heriotza mendeku bihurtzen du.

Japonian fugu arraina jateko, ziurtagiri berezia duen jatetxeetara joan beharra dago. 10 bat urte ematen ditu sukaldari batek fugu arrainak dituen pozoï glandulak lehertu gabe, haren anatomia moztzen ikasten. Hauetako pozoï poltsatxo bat lehertuz gero arrain guztia kutsatu eta jaki hilgarria bihurtzen da. Fuguak duen tetrodotoxina pozoïa liseriketa aparatua iristen bada, jan berri duzuna zure azken afaria izateko % 60ko aukerak dituzu. Japoniarrek fugu arrainaren zapora eta testura maite dute. Baina gehiago maite dute gastronomia eta heriotzaren arteko jokia. Fugu erruletan jotatzea hala ere ez da hain arriskutsua. Gutxi dira pozoïtuta hiltzen direnak. Hala ere, fugu jatetxe batera sartzen bazarete, ez ahaztu japoniar askori kanpotarrak (gainjin) ez zaizkiela gehiegi gustatzen...

The Fugu fish (Fugu rubripes), also known as a Puffer Fish or Blowfish, has two basic defence mechanisms. One of the mechanisms used to scare off its enemies is to puff itself up into a balloon-like ball. This method of defence is quite successful more often than not, but our fish friend is also victorious in defeat. This leads us to the second form. The fugu's body is stuffed brimful with poisonous glands. When eaten, its death turns into vengeance as it kills the eater. If you want to eat fugu in Japan, you have to go to a specially certified restaurant. Chefs spend up to ten years studying the fugu's anatomy so as not to burst even one of those poison glands. If one of those little venomous bags goes 'pop', the whole fish becomes an infected mortal morsel. If the tetrodotoxin poison gets into your digestive system, there's a 60% chance that this will be your version of the last supper. The Japanese love the taste and texture of the fugu, but they love the idea of mixing gastronomy and death ever more. Fugu Roulette is not that dangerous all the same. Deaths by fugu are few and far between. All the same, if you do happen to visit a fugu restaurant, bear in mind that the Japs are not overly fond of foreigners (gainjin)...




## tokio blues

haruki murakami. tusquets.

Murakamiren eleberria nolabaiteko boom-a izan da atera zenetik. Kritika on ugari eta aipamen berezirik ez zaio falta izan komunikabide espezializatueta. Liburu ederra da. Erritmo geldoa duena. Sentsazio bikoitza uzten du ordea. Batetik, japoniar topikoak hausten dituela iruditzen zaizu. Maitasuna, sexua, heriotza, bakardadea modu gordinean azaltzen zaizkigulako, zeremoniarik gabe, baina bestetik, eta irakurketa amaitu ostean, japoniarra ez den inork halakorik ez lukeela idatziko konturatzen zara. Gordina izanda ere, Murakamiren eleberria elegantea delako. Estilo landua du. Eta hain justu estilo hori, gordintasunean ere estetika mantentzeko esfortzu hori, oso gauza japoniarra dela iruditzen zaigu.

The novel of Murakami has been a boom since it was published. It got many and good reviews and special mentions among specialized media. It's a wonderful book. However, it causes a double sensation. On one hand, it seems it breaks the Japanese topics because love, sex, death and loneliness appear quite strongly. On the other hand, and once the reading is over, one realizes that only a Japanese could have written that. Although it is quite crude, the Murakami's novel is elegant. It has a cultivated style. And it is this style, this effort to keep the aesthetics what we think is Japanese.

testua / by: the balde



paperpapers



## zinema japoniarra

felipe rius. alberdania.

